

Michel Gustarriet
Santa Grazi, Zuberoa (1867)

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 46 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Irakaslea zen. Euskalkia: zuberera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.200 eta 2.201

Zintak

SAN-002

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-08-04
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Liskarrak bozkak

- **Erref:** SAN-002/001
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:18

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

<p>Barrutietako hauteskundeetako bozkak direla-eta liberalen eta erreakzionarioen arteko liskarrak. Kontakizun hori egunkari batetik hartutakoa da.</p>

Transkripzioa

Seküla beno berri hobi k jiten zaizkü gainti orotarik daigün iganteko bozketan gañen. Egün amust erran dügün bezala, Donaphaleun Barthaburu eta Etxas jaunek ez dükeie düdükarik. Xuriak etzien fida haier buurtzera; hasi izan balia erri egingarri ziatekin; enthelegatü die behar diela egun isil-isila beren xokhuetan; gure adixkidek ukhenen dütie errepublikeñen botzak oro eta hamarretarik bederatzik errepublikein dia Donaphaleuko kantonamentin. Uste gunin Atharratzen luta amini bat bazatekila; xuriek herots hanitx egiten die bena indar guti die. Atharratzen berin bada dozena erdi bat bethi ari harat laster, hunat laster arrathu phuzuatien gisa bena gezurrer guti behatzen da haboronetik ere züntzürä busti nahi din zonbait, zeren bethi bezala, bai han bai bestetan, xuriak adresatzen dire gizonaren tripari eta ez entelegiari, ezin eman ez arrazo hunik emaiten die ardu [...] zonbait; etzaitze arren jente entelegüdünak behatzen eta iruski gormant beno enthelegüdün beita hanitzez haboro xurien indarra Atharratzeko kantonamentin ttipini da. Larrazkenin osto hollia zühañian bezala da ez eror, bai eror. Daigün igantin erori ren da orozbat. Eta orai hitz bat finitzeko. Kazetaxko batetan üsü izkiribatzen dian bati üdüri zaio terribleko mezperetxia egiten dila gure adixkiden deitzez blokarrak; uste dü izierazten dütian jente inozentak; hitz horrek egiten dü alhor mügan khürso baten efeita; behin behin txoriak lotsa dia khursuaren, bena zonbait egunen burian joaiten dia gaña khaka egitera. Gü segürik nahiago gira izan milatakuaz blokar ezi ez aphez üzku lekhatör. Blokarrak adixkide leial, serius dia, bethi prest zerbütxü egitera beren lagunak untsa süstengatzen dutie jüsto den bezala; klar dia, ez traidör. Aphez üzkü lekhatörak aldiz hamarretarik bederatzia feiretan saltzen dien beharri lüze hen pare die zentzia; hamargerrena tronpür bederatzia aisa tronpatzen ahal dienak; sinhetsi nahi ezkütianak aski du juaitia Pagolara, han erranen deie eia gezurrez mintzo gienez. Maulen beldürä bezala badu lanjerra murde Sorhy-k. Ikhustiareki errepublikako drapeua etseki behar zükian kandidata ezte la ausar, lotsa dela presentatzera, mera eta adjunten bilkhürak desidatü dü. M. Louis Appalasse Bildozeke merari botzen emaitia. Jaun hori ezta ümen uhure gose; ozta uhuren ondötik ebiltan beste zonbait bezala; kargütan jarten bada ezta bere büriari plazer egiteko, bena bai bere herritarren zerbütxü egiteko. Haborosek ezagützen die M. Appalasse kantonamentian; badakigü laborantxako gaizetan hanitx enthelegatzen dela eta laborarier hanitx etxekitzen da; langiliak ere untsa ezagutzen dütü egün oroz hen artian bizi denaz gañen: simple da, mundu orok aisa elhestatzen ahal dü; karakterä bezain hun dü bihotza, jaun horen

plazerik handiena da zerbutxu on baten egitia. Eztugu erran beharrik orai artin günien kontseiller jeneralak administrazioniaren eretzian eskerra eta estimia txipi ziala eta krerita txipiago horren medioz ez herriek ez partikülarek ez tie egündano deus antenitü ez antenitzen ahal; gihauen hunetan hobe dugu jaun horri pausiaren emaitia; igaran aldian hitzeman zien etzela haboro presentatüren; nahi edo ez behar deogü bere hitza etxekerazi eta orok ükhen ahal dezagun gure behar ordietan lagün hun bat eman ditzagun gure botzak L. Appalasperri.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com